



XXIII. Ikastolaren Eguna bertan behera

Gaitza malapartatu honen ondorio txarren zerrendari beste bat gehitu behar zaio: Bihar zortzi, maiatzaren 9an, ospatu behar genuen Ikastolaren Eguna bertan behera geratuko da. Festa Batzordeak, ordea, ikasturtea amaitu bitartean bestelako ekimen parte-hartzaile bat martxan jarri ote litekeen aztertuko du.



Ordenagailua erosi baino lehen adi! (LH6)

Birusa dela eta online irakaskuntzan murgildu garen honetan, ordenagailu eta gailu teknologikoen erabilera asko handitu da. Hainbeste, etxe askotan eguneroko beharrei aurre egiteko zailtasunak dauzkagula. Egoera berri honen aurrean, ikastolak zera adierazi nahi du: seme-alaben beharrei erantzuteko ordenagailu berri bat erostekotan bazarete, jarri aurrea harremanetan ikastolarekin. Izan ere, azpiegitura teknologikoaren plangintza berritzen gabiltza, eta horrek hurrengo ikasturtean ordenagailu berrien erosketa suposa dezake DBH1en. Hori horrela, kurtsua amaitu bitarte, ikastolak bere esku dauzkan ordenagailuak ikasleen esku jartzeko erabakia hartu du, etxetik ikasi ahal izateko baldintzak bermatu daitezzen.



Batxilergorako matrikulazioa

Maiatzaren 22 bitartean zabalik dago Ikastolako batxilergoan izena emateko epea. Info gehiago [hemen](#). Zabaldu mezua! Bitartean entzun dezakezue irratirako prestatu dugun [iragarkia](#).



OHARRAK / AGENDA:

- **DBH:** 2. ebaluazioko erreperazioen emaitzak ikusgai astelehenean [Alexian](#).

